

Sanpedroak MUNDAKAN

San Pedro bezpera ospatuko dute gaur mundakarak; haatik, etzazula pentsa oraintxe murgildu direnik jai giroan; aurreko astean ere jada San Joan bezpera ospatzeaz gain herenegun jai giroan igarq zuten egun guztia. Oraingoa, beraz, jarraipena baino ez da.

San Pedro bezpera martxosoa

ANARTZ LARRINAGA

San Pedro bezpera ospatuko dute gaur mundakarak. Dena den, eta sarreran aipatu dugun moduan, etzazue pentsa jai giroa orain iritsi denik Mundakara. Aurreko astean dagoeneko, San Joan bezpera topera ospatu zuten Bizkaiko itsasertzeko herri txiki, dotore eta ponpoxo honetan. Kontuan izan gainera, udan Mundaka udatiar, turista eta *surferrez* gainezka egoten dela, eta honek jaiak are jendetsu eta builatsuago egiten dituela.

Esan bezala bada, iragan ekainaren 23an hainbat ekitaldi izan zituzten mundakarak San Joan bezpera ospatzeko. Gauzak horrela, arratsaldeko zazpietan Erreka auzoan ohiko kalejira egin zen, honen ostean 'Sorgin-Txiki' errez. Geroago, gaueko hamarretan sorginarenkalejira egin zuten; hamaiketan, berriz, sorgin honi su eman zioten, eta azkenik erromeria izan zuten herriko enparantzan. Igandean ere jaien kariaz hainbat kirol ekitaldi berezi egon ziren. Ezin esan beraz, jaiak hasi berriak direnik.

Hala ere, ekitaldi garrantzitsuenak orain etorriko dira; goizean goiz ekingo diete mundakarak jaiak, goizaldean egingo den Alboradarekin. Alborada, gainera, herriko txistulariek eskainiko dute.

Hurrek aspertzeko denborarik ez

Arratsaldean, berriz, haurrak —eta hain haur ez direnak ere bai, seguruenak— izango dira protagonista, ekintza nagusienak eurei begira eginak baitaude.

Hasteko, arratsaldeko bostetan 'Bits sesio magikoa' izango da. Oroitzen hasi eta ahoa ere adurretan jartzen zaigu, herriko jaietan suhiltzaileak herrira jaitsi eta euren mangera luzeekin aparra bazter guztietara barreiatu eta gero zein ondo pasatzen genuen gogoratu. Sakatu bati, bitsa bota besteari, kalean pakean zebilena ere blai eginda utzi... Azkenean, noski, busti-busti eginda etxera, arropak aldatzera. Aurretiaz, hori bai, amaren bronka eta errieta pairatu behar, baina hori ez zen ezer izaten aurretiaz zein ongi pasatu genuen ikusita.

Eta bitsaren ostean, buruhandi eta txistularien kalejiraren txanda izango da. Eta berriz ere ahoa adurretan, txikitako tentsio une haien emozioaz oroitzean, txis-



Bizkaiko kostaldean kokaturiko herri txiki honek aurreko astea ere jai giroan igaro zuen.

tularien atzetik buruhandiak (Popeye, Amonatxo Beltza, Otsoa...) noiz agertuko zain.

Egunari errematea jartzeko, eta hurrek dena monopolizatu behar ez dutenez, helduagoentzako txanda izango da gau par-

● Haurrak izango dira arratsaldean egingo diren ekitaldietako protagonista nagusiak.

tean: gaueko hamaiketan hasi eta goizaldeko hirurak bitartean (ziur azkenean ordu hau dexente luzatzen dela), izan ere, Akelarre taldeak erromeria eskainiko baitu, golfo, gau txori eta gainontzekoen kexuak ixilaratzeko.

EGITARUA

GAUR

Goizaldean: Alborada Mundakako txistularien eskutik.

17.00: Herriko plazan, 'Bits sesio magikoa'.

19.30: Buruhandi eta txistularien kalejira. Bermeoko Musika Bandaren harrera.

11.00etatik 15.00etara: Akelarre taidearekin erromeria alaia.

BIHAR

10.00: Argazki rallya Rash argazki taldeak antolatuta.

10.30: Kalejira Ertzaintza bandarekin eta txistulariekin.

11.00: Mundakako abesbatzak abestutako meza nagusia.

12.00: Gazte-zar dantza taldea herriko enparantzan.

13.00: Ertzaintza bandaren eskutik kontzertua plazan.

17.30: Eskuzko pilota partiduak; Urkidi-Zearra Eloz-Larrazabalen aurka eta Beñes-Luke Txo III-Azkuneraren kontra.

21.00etatik 22.00etara: Nervion musika taldearen eskutik erromeria.

11.00: Astondoa pirotekniak prestatutako su festak.

11.30etatik goizaldera arte: Nervion taidearekin erromeria.



Egunero zabalik

- ✓ 1985az geroztik zure denda.
- ✓ Taula eta trajeetan espezializatuak.
- ✓ Alokairu eta 2. eskukoak.
- ✓ Katalogoa eska ezazu.
- ✓ Salmentak ere postaz.

Txorrokopunta, 10 MUNDAKA
Tel.: 687 67 21

Jai giroa nahi izan ezkeror
etorri
ATALAYAKO TXIRINGITOr
MUNDAKA



MURGUA AUTO TALLERAK

✓ Txapa-mekanika-pintura-olio aldaketa
VOLVO PENTA Zerbitzua

ZODIAC - TOHATSU - HONDA MARINE

Bañutegi k., 4 (Portutxu) — Telf.: 687 60 21 — MUNDAKA

TXOPOS HANBURGESAK

- Plater konbinatuak
- Kaxuelak

Kepe Deuna, 2 Telf.: 687 64 82 MUNDAKA

ITURGINTZA eta BEROGINTZA JOSE MARI

Goiko kalea, 5 Telf.: 617 70 87 MUNDAKA

Construcciones ALKARTU, S.L.

GOIKO KALEA, 9 - Tlf.: (94) 687 67 65 - MUNDAKA